

## Atez ateko bilketa antolatzen ari dira

Usurbilen bezala, Lasarteko auzo batzuetan ere abian jarri nahi dute atez ateko zabor bilketa



Larunbatean, errausketaren aurkako jaialdia egin zen Zubietan.

Ricardo Ortega, San Markos Mankomunitateko presidenteari aurreratu duenez, Lasarten ere hasi dira atez ateko zabor bilketa antolatzen. "Hasiera batean N-1 errepidearen esku aldean dauden auzoetan egingo litzateke. Hau da, Antxisu, Oria, Basaundi, Bitarte, Arranbide, Oztaran, Goiegi eta Zabaletan. Gutxi gorabehera, 3.000 biztanle hasiko lirateke zaborra biltzeko sistema berria erabiltzen."

Mankomunitateko presidenteari arabera, orain guztia antolatzen ari dira: asteazken bat aldiz bilduko duten zaborra, zenbat langile beharko diren horretarako... Arazo nagusia, berriz, materia organikoarekin zer egin da. "Lapatxeko zabortegian ez dakigu utziko ote diguten materia organikoa uzten. Nahiko beteta dago, baina

ahaleginak egingo ditugu horizan dadin."

### Usurbilen ez da egingo konpostaje planta

Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak jarritako alegazioa dela eta, Usurbilgo Udalak bertan behera utzi du Asteasuainen materia organikorako konpostaje planta egiteko asmoa.

Usurbilgo Udalak plan partziala aldatu nahi zuen lur sail horretan konpostaje planta egiteko, baina, Lasarte-Oriako Udalak eta partikular batek aurkeztutako alegazioak direla eta, alde batera geratu da asmoa.

Plan partzialen jasota dagoenez, inguru horretan ez da eraikuntzarik egitea aurreikusten, betiere kirolarekin lotutakoak ez badira. Lasarteko Udalak uste du, konpostajerako planta batek arazo eta

eragozpenak eragingo litzatekeela. Hori dela eta, inguruan zirkuloserako pista bat egiteko asmoari eusten diote.

Usurbilgo Udalaren arabera, berriz, lur eremu hori herri-urriti dago, eta ez litzateke asko erabiliko. Horregatik, gune horretan konpostaje planta ezar zitekeela iritzi zioten bere garaian.

### Errausketaren aurka

Errausketaren aurkako jaialdia egin zen larunbatean Zubietan, Errausketaren Aurkako Gipuzkoako Koordinakundeak antolatuta. Goizean, Artzabaletera joan ziren hainbat lagun, Gipuzkoako Diputazioak errauskailua eraiki nahi duen tokira. Koordinakundeko kideek azaldu bezala, Diputazioak errauskailua egin nahi du, eta jada, lur sailak desjabetzen hasi dira. •

### Harrera ona Talaia dantza ikuskizunak

Kulturetxea bete ez bazen ere, jende asko joan zen joan den ostiralean Talaia dantza ikuskizunaz gozatzen. Gero Axular dantza taldearen emankizunak zapore gozoa utzi zuen. Jendeak txaloekin eskertu zuen dantzarien eta musikarien emanaldia. Dantzari gaztetxo ugari taula gainean, eta horiek batera musikariak eta kantaria. Berezi, musikarien eta kantarien maila bikaina agerian geratu zen. Talaia dantza ikuskizunak maitasunezko istorioa du ardatz, eta portu batean giro-tuta dago.



### EUSKARA/2

**Euskara  
ziurtagiriak jaso  
dituzte herriko 13  
saltokik**

### KULTURA/4

**Gotzon Huegun  
eskultoreak saria  
irabazi du Suitzan**

### KIROLA/6

**Santa Ana  
Pala Txapelketa  
azken fasean  
sartu da**



## Bideo Lagunak

**Udaberrian ere  
eskaintzak!!**

**TIEN 21ekin  
RENOVE PLANa  
ez da bukatu**

**Betiko zerbitzua  
gure  
aholkularitza  
onenarekin**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134  
e-maila: [jose@bideolagunak.com](mailto:jose@bideolagunak.com) • [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

# Euskara ziurtagiriak banatu dituzte

■ Herriko hamairu saltokik jaso dituzte Udalak ematen dituen euskara ziurtagiriak ■ Denda horietan euskaraz erosteko aukera izango da ■ Udalak ekimenaren balorazio baikorra egin du

## TXINTXARRI

*Euskararekin zeu irabazle* leloa du Lasarte-Oriako Udalak saltokietan euskara bultzatzeko abian jarritako planak. Jada, herriko hainbat saltokik egin dute bat planarekin.

Joan den ostegunetik aurrera, beste 13 saltokik dute euskara ziurtagiria. Horrek esan nahi du, denda horietan erosleak euskaraz eskatzeko aukera duela. Hori dioen ziurtagiria izango dute.

Honako saltokiek jaso dute ziurtagiria: Maite Erkizia ile-apaindegia, Mugika auto-eskola, Berasategi kafeak, Etezarreta harategia, Adats ile-apaindegia, Maya lenteria, Biona arrandegia, Ges aseguruak, Haritza terapia energetikoak, Ibaiondo fisioterapia zentroa, Indartuz prestakuntza fisikoa, Okela harategia eta Uruzola mertzeriak.

Beste saltoki batek, berriz, plan integrala onartu du, Jose Mari Iturbe dekorazio dendak hain zuzen ere. Horren arabera, denda zein langileak eskalduntzeko pausok emango ditu. Hala nola, errotuluak eta dokumentazioa euskaraz jarri,



Joan den ostegunetik aurrera banatu ziren euskara ziurtagiriak. Udaleko ordezkariak izan ziren ekitaldian dendarekin batera.

besteak beste. Horiek bete ondoren, ziurtagiria jasoko luke saltoki horrek ere.

### Udala pozik

Udaleko arduradunek balorazio ona egin dute. Ricardo Ortega

Euskara Batzordeko buruak zoriondu egin zituen ziurtagiria jasotako dendariak. Ortegak gogoratu bezala, EAEn euskara ere ofiziala da, eta kontsumitzaileak arreta euskaraz ere jasotzeko eskubidea du. Udala-

ren aldetik, berriz, eskaintza tekniko eta dohainekoa eskaintzen dela gogoratu zuen.

Dendariak ere pozik jaso zituen ziurtagiria joan den ostegunetik aurrera Kulturetxean egindako ekitaldian.

Jose Angel Diaz de Gereñik, Haritza energia terapeutikoko arduradunak, bere esperientzia kontatu zuen. Jose Angelek kontatu zuenez, kalean ikasi zuen euskara, ez zuen Euskaltzera joan beharrik izan. Hamalau urte zituen, lagunarte berria egin zuen. Euskara egiten zuten guztiak, eta Jose Angel saiatzen hasi zen.

Saiatu, eta baita euskara ikasi ere. Haritzako arduradunaren arabera, etxean beti gaztelaz egiten zuten, gurasoek euskaraz ez zekiten-eta. Anaiak, baina, euskara ikasi zuen, eta egun batean, bi anaiak euskaraz hitz egiten hasi ziren. Gaur arte.

Egun, Jose Angel euskaraz bizi da, eta lanean ere euskaraz arreta eskaintzeko gai da. "Bezeroak arreta euskaraz jasotzeko eskubidea du. Horregatik, bezero bat saltokira sartzen denean, lehenengo hitza beti euskaraz egiten diot. Gero, euskaraz ez badaki, beti egongo da gaztelarara aldatzeko modua." Hitz horiek animatu zuen Jose Angelek dendariak, lehenengo hitza euskaraz egitera. •

## Lasarte-Oriako bidegorriaren lanak abian dira

2004an, bidegorria eta oinezkoentzako pasealekuaren egitasmoaren lehenengo urratsak eman ziren Lasarte-Orian.

Lurralde-antolamenduari garrantzia kontuan hartuta, ibilgailuen erabilera gutxitu eta mugikortasun iraunkorra bultzatzeko, Lasarte-Oriako Udalak mugikortasun eta irisgarritasun estrategia martxan jarri zuen.

Estrategia horren baitan, peatonalizazioa eta bizikletaren erabilera oinarrituta egitasmo bat aurrera eraman nahi du eta horretarako oinezkoen eta garraibide alternatiboen joan-etorrien aldeko azpiegiturak sortu behar ditu.

### Lanak

Proiektuak ibaiaren ondoan udalerriko auzo ezberdinekin lotura duen 3 kilometroko ardatz bat sortzea dakar. Honek, gainera, Gipuzkoako sarearekin bat egingo luke.

Proiektu handia izanik, zortzi zatitan banatu da eta hilabete hauetan bidegorri sarea osatuko duten 1.083 metro egingo dira.



Egun ibai ondoko pasealekuan, Ola kalean (67m), Industrialdeko eremuan (121m) eta Oriako pabilioien atzealdean (440m) ari dira lanean. Eta eremu horretatik kanpo, Geltoki kalea eta Hipodromo etorbideko bidegurutetik tren geltokira, eta handik Atsobakar auzora doan bide tartean ere lanean dihardute.

Lan hauen ostean, 2km baino gehiagoko ibilbidea, hau da, bidegorriaren ehune-

ko handia bat prest egotea ekarriko luke.

### Oria ibaiko pasealekua

Bestalde, gobernu taldeak uste du Oriako ibaiaren ondoko pasealekua berreskuratzeko espazio horren ingurumena eraberritzen lagunduko duela. Era berean, oinezkoentzako pasealekua bermatuko du ibai-bazterra komunikazio eta aisialdi gunea bihurtuz eta, paisaiari dagokionez, ibai hiri-bilbean integratuko du. •

## Ingurumen Ministerioak 20 milioi bideratu ditu hodi biltzailerako

Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunerako Ministerioak Dragados eta Moyua eraikuntzak enpresei esleitu die Lasarte-Oria eta Usurbilgo ur zikinen hodi biltzaileraren lanen proiektua, 20.393.007 eurotako inbertsioa.

Saneamendu azpiegitura berri honek 25.000 biztanle ingururen hondakin-uren isuria saihesteko du Oriako ibaian.

### Lanak

Zazpi hodi adar, hiru ponpake-ta estazio, bultzadako hiru hodi zati eta grabitate sistema dituzten bi hodi biltzaile egingo dira Usurbilen, Lasarte-Orian, berriz, ur zikinen hodi bat, euri ureko hiru hodi, bederatzita hodi bateratu eta grabitate sistema duen hodi biltzailea.

Honetaz gain, Hipodromo-ko zubi ondoan eraikiko den ponpaketa estazioak, 280 litro segundoko ur-emia bateratua duten bi motoponpa multzo izango ditu, gela lehor batean eta 2000 metro kubikoko euspen eta erregulazio ur-biltegia.

Era berean, saneamenduko

ura Urumeako isuraldera garraiatzeko, 2.835 metrotako bultzada hodi bat, 806 metrotako tunela eta 1.471 metrotako hodi biltzaile orokorra egingo dira.

Uholdeak ekiditeko euri ura eutsi eta erregulatuko dituzten ur-biltegiak egingo dira eta hauetan teleaginte kablea ezarriko da. Era honetara, Loiolako ur zikinen araztegiak sistema gutzia kudeatu ahaliko du.

### Udalaren iritzia

Ana Urchueguia alkatea zori-neko agertu zen osteguneko Udala Batzarrean. "2003an hasitako proiektua martxan jarriko da eta gestioak egin ostean, urte bete aurreratzea lortu da," adierazi zuen.

Bi urte eta erdiko lan "gogorrrak" izango dira, baina herriaren saneamendurako ona izango dela ere azpimarratu zuen.

Lasarte-Oriako Udala bilera teknikoetan egongo da lanen planifikazioa egin eta hauek herrian eragozpenak sortu ez ditzaten. •

# Arrakastatsuak Zero Settek Frantzian eskainitako kontzertuak

TXINTXARRI

Zero Sette akordeoi orkestrak Frantzian egindako bira oso arrakastatsua izan da, taldeko partaideen esanetan.

Lorraine eskualdean ibili dira, uztailearen lehen astean, bertako akordeoi taldeak gonbidatuta. Guztira hiru kontzertu eskaini dituzte. Horietako bat Villerupt herrian, 410 lagun joan ziren kontzertura. Guenange herriko kontzertura, berriz, 395 joan ziren, eta bukatzeko Jouef herrikora, 475.

## Zero Setteren emanaldia

Lorrainek antolatutako *FIA 2009 III. Jaialdian* hainbat akordeoilari famatuk parte hartu zuten. Frantziako Guy Giuliano, Portugalgo Joao Frade, Italiako Giancarlo Salaris eta Michael Bridge kanadiarrak esku hartu zuten jaialdian, eta maila zein estilo paregabea erakutsi zuten.

Zero Settek ere denbora tarte handia izan zuen erreperitorioa erakusteko. *Danza del Sable*, *Violentango*, *Air*, *El Caserio*, *Bagatela* eta *El tambor de Granaderos* eskaini zituzten Lasarteko akordeoi orkestrak.

Hain zuzen ere azken obrarekin, jendea zutitu eta txaloka hasi zen. Antolatzaileek esan zuten, aurreko edizioetan ez zen horrelakorik gertatu. Beraz, Zero Settek lortutako arrakasta



Hainbat kontzertu eskaini dituzte Lorraine eskualdean akordeoi taldeko kideek.

erabatekoa izan zen.

Ikusleen eskariz, Zero Setteko partaideek jotzen jarraitu behar izan zuten. *Guillermo Tell* eta Edith Piafen bost arrakastak interpretatu zituzten herriko taldeak. Hain zuzen ere, Celino Brattik konposatutako obra, Elias Goikouria zuzendariak presatutako sorpresa izan zen. Entzuleak "txoratuta" gelditu omen ziren, lasarteoriatarrek emandako bukaerarekin.

Baina kontzertuak eskaini ez ezik, Lorraineko eskualdea bisitatzeko aukera izan dute akordeoilariak. Meategi bat bisitatu dute, eta Metz hiria ere bai. Homecourteko udal-txean gainera, alkateak egin zien ongi etorria.

## Lasarten ere bai

Datorren irailaren 26an Lasarten egingo da VI. Akordeoi Jaialdia. Hain zuzen ere, jaialdi horretan aurkeztuko

dituzte Edith Piafen bost arrakastak.

Baina hori baino lehenago beste egiteko batzuk izango ditu taldeak. Uztailearen 19an, esaterako, Asturiasek izango dira, Pola de Siero herrian. Datorren asteburuan jaia dira herri horretan, eta lasartekoek bertan jotzeko gonbitea jaso dute. Horretaz gain, Donostiako Aste Nagusian ere joko du taldeak, boulevardean hain justu. •

## Eguraldi ona, musika ona

Joan den larunbatean, DJ Grassmann disko jartzailearen sormenez gozatzeko aukera izan zen. Jalgi kanpoan, soul, funki, reague eta jazz estiloko musikak nahastu zituzten disko jartzaileak. Eguraldi ona lagun, jendea gertu-

ratu zen ekintza horretara. Terrazan edari bat hartuz, musika estilo desberdinak entzun zituzten. Bi ordu iraun zituzten musika jartzailearen emanaldiak. Ez da lehenengo aldia Lasarten musika jartzen duela.



## Goiegi Ibarreko esleipena lehiaketara

Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko batzordeak ostegunean onartu zuten Goiegi Ibarreko 76 Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eraikuntzaren esleipena egiteko baldintzagarria lehiaketa publikora ateratzea.

Lasarte-Oriako Udaleko alkatezatiak ezagutzera eman dutenez, lau udal-partzela dira, horietako bakoitza udal titulartasuneko 19 etxebizitzako eraikin batekin.

Ekimen garrantzitsua da eta lasarteoriatarrei aukera

emango die merkatu librean dauden prezioetan baino baxuago 76 etxebizitza eskuratzeko. Hauek zozketa bidez esleitu dira.

Ana Urchueguía alkateak azaldu duen moduan, "etxebizitza eskuratzeko erraztasunak jarri nahi ditugu bizi-kalitate hobea ziurtatuko duen udal politika aurrera eramanez".

Orain hilabete izango dute enpresa ezberdinek bere proposamenak aurkezteko eta obra irailan esleitzea aurrerikusten da. •

EUSKARA

## AEK-n irakasle izateko oinarriko ikastaroa

AEK-k antolatutako ikastaroa hasierako formazio metodologikoa eta didaktikoa eskuratzeko aukera paregabea da euskara irakasle izan nahi duenarentzat, hizkuntza lan-tzeko metodoak ezagutu nahi dituenarentzat edo hizkuntzan bere formazioa osatu nahi duenarentzat.

Ikastaro teoriko-praktikoa izango da eta bertan euskararen irakaskuntzarako beharrezkoak diren tresna metodologikoa eta irizpide teoriko eta praktikoa eskuratzeko gain, irakaskuntzarako oinarrikoak diren kontzeptuak, komunikazioaren osagaiak kontuak izanik, eta klaserako materiala eta estrategia ezberdinak ezagutuko dituzte.

Ikastaroa bukatzerakoan eta lan poltsan sartzeko aukera ere izango dute interesatuek.

AEK-k jakitera ematen du gainera bertan irakasle jarduteko ikastaro hau egitea derri-gorrezkoa dela.

2009ko irailaren 7tik urriaren 2ra iraungo duen ikastaro honek eskaintza konbinatua du, on line eta aurrez aurreko 6 saio. Hauek irailaren 7an, 11n, 17an, 25ean, 30ean eta urriaren 2an izango dira 9:30tik 13:30era.

Era berean, AEK-k jakin arazten du matrikulen hurrenkera kontuan izango dela eta kopurua mugatua dela, 15 kideetako taldea izango da.

Matrikula uztailearen 6tik 24ra egin behar da. Informazio gehiago eskuratu edo izena eman nahi duenak mader-f@ae.org helbide elektronikora edo Donostiako Iztueta kalea 3 behean dagoen egoitzara hurbildu behar du. •

JAILA

## Karmengo Amaren jaia datorren ostegunean

Datorren ostegunean, hilaren 16an, ospatuko da Karmengo Amaren eguna. Hori dela eta, hainbat ekintza antolatuta dituzte Ori auzoan.

Goizeko 10etan trikitalariak kaleak alaituko dituzte. Solano musika eskolako trikitariak arduratuko dira horretaz. 12etan, berriz, meza izango da Karmengo Amaren omenez. Pilar Catalina sopranoak abestuko du mezan, eta Amaia Dorronsorok organoa joko du. Meza amaituta, trikitilariak musika jotzen jarraituko dute. •





Gotzon Huegun Suitzako Morges hiriko IX. Simposium-ean saritu duten eskultorea

'Eskultura express bat egin dut hamabi egunetan'

Egurra landu zuten eskultoreen artean lan onena izan zen berea. Italianik marmol zurizko bi harri bloke handi ekarri ditu. Miguel Angel ospetsuak duela 500 urte Carrarako marmol hori bera erabiltzen zuten estatuak egiteko.



Italiako Carrarako harrobiako marmol zuria elkarri du eskultura bat egiteko.

“ Eskultura bat egiteko simposium-a ez da tokirik onena. Azkar egin behar duzu, ondoan jendea argazkiak ateratzen daukazularik, ... Askotan pensatzen nuen zoo bat zela hura eta gu animaliak. Ikusizun handi bat da.

“ Sariak curriculum-aren motxila nolabait betetzeko eta medioetan ezagutarazteko balio du, baina ez du esan nahi lana hobeto edo okerrago egingo dudarik edo hemendik aurrera hobea naizenik.

Hernaniko Florida auzora bidean Gotzon Huegun Lasarte-Oriako eskultoreak duen tailererra hurbildu orduriko, kanpotik entuzten da tik tok hotsa. Barruan lanean arri da egurra edo harria zizelkatzeko. Kanpoan, marmol zurizko bi bloke handi dauka. "Italiako Karrarako harrobiakoak dira, Miguel Angel handiak erabiltzen zuten marmol bera da" esan digu seguituan.

Jon ALTUNA
Makromol zuririk ere El greko margoariaren lan baten errodutokio bat egungo du pantoi baten jartzeko. Hurengo hiru girelak, baina azkeroen 30 ginen, 13 hiridide ezberdinekoak. Ni Turkialako eta Poloniako bi emakumeen ondoan izan nintzen. 12k egurra landu nuen eta beste 16k harria.

Haria ere eskuz zizelkatzeko al zuten?
Bai, XII. mendeko gaztelu baten kanpoaldean egiten da simposiuma, lorategiak daude, dena ondo zainduta dago eta ez dute hautsa ateratzen zuten tresnarik erabiltzen uzten. Hori jakinik, erabaki nuen egurra landuko nuela. 12 egunetan ez da denborarik harrian lan piskat majota egiteko. Batzuek erdi bukatuta Gainera inguruan jendea duzu, estresatuta...

Zer moduz Suitzako Morges hiriko simposiumean?
Lan asko... hamabi egun izan dira, goizeko zortizietatik aurrera, baztuzan seirak eta lanean, eta beste batzuetan hamarrak arte, gaueko simposium-a delatzen zioten horri. Suitzarrak horrelakoak dira, dena zuzargi eskuratuta daukate, eta ezin horik atera.

Ekainaren 10ean joan zinen, ezta?
Bai, alera nintzen, auto kaxkar xamarrak daukat eta penitentsa nuen bi egunetan irfisko minze-lan. Gero dena segidan egin

handienik... beraz hurrengoan ere seguru-aski egurra landuko dut. Zozkera izaten da, eta alde dago, egurrarikzko begiak zituzten egurrak bat tokiatuz gero... Hiru zembakia zuena ikusi eta harri bota bion begia. Eta tokiatzen zaidan, ze onai! hiru tokiatu zitazidan. Ze onai!

Han geratu al da eskultura?
Nirea da eskultura, baina komen-tatu zidaten han uzten baldin banuen, lehendabizikoa sarri jaso eta gero, seguru aski salduko nuela. Banketeak eta enkunt-deak erosten omen dituzte.

Pezioa jartzi al diozu?
Bai jartzi ditor, baina Suitzatan ere ez dago. Egurra eraman ditugu erakusleko eta ez da ezer zaildu. Herriak 12.000 biztanez dituzte, 1.500 egurgarriaren kolonia duden bat ere bai. Laku bat dago, leman, lorez inguratuta, oso turistikoa da. Drua bada-goia esan zidaten. baina ez dakit seguru.

“La dame de Morges” jarri diozu izena lanari, zer dela eta?
Joan eta izenburua jarri behar zitziola esan zidaten. Buella bat eman nuen eta denek La fleur de Morges, El Espiritu del Lago, (denak Morges eta inguruetan) loturako izenak jarri zioten. Morges-i fleur du lac, lakiko lorea delitzen diote) eta nik ere La dame de Morges jarri nion. Mutur handi xamarrak esaten zidan argentinarak, baina zer egin behar nuen, bada?

Emakumeen eskulturrak sarri egin dituzu, ezta?
Bai, eta hamabi egun zirenez, penitentsa nuen erraz egitea.



Martha ematen al dizu Miguel Angel bere eskulturrak egiteko erabiltzen zuten marmol zuria berbera erabiltzeko?

Bai, kuriositate moduan ondo dago. Orain arte ez dut Italiako marmola landu eta berrakurri izan dut edo esan didate izugarri ona dela. Orain ikusiko dut benetan horrelakoan den.

Beste proiekturik?
Orain hau bakarrak daukat buruan. Hau bukatzen dudanean harriko eskultura bat ere egin behar dut... eta bada beste proiektu bat. Ursibilen, Mikel Laborean omeneko eskultura lehiaketa bat planteatu behar da gusiatuko litzaidekate denbora piskat baldin bukatuko proiektu bat prestatu eta aurkez-tea. Erakargarria da niretzako. Mikel Laboa Euskal Herrian izan denekin, bere omeneko eskul kultur mailan.

Aurretik egin al zara horrelako simposium batean?
Hiruatan parte hartu dut. Egu-errezko eskultoren batean Frahtzian eta harrikoen batean Almerian. Berriz berria da, lan-pila bat egiten duzu, jendea ezagutzen duzu, urtean zehar horien informazioa trukatzen duzu, hemen lehiaketa dago-la, han simposium-a... Urtean behin edo bi urtean baino bat egitea ondo dago. Baina apur bat tromamundoa izan behar zara... Suitzan adibidez janaria txarra zen, okela onko, salbitak... Denak jaten nuen, ez neukan beretik naia... Laku bat daukat ondoan, arinak badira, baina arinak ez dute jaten. Behin espainar batek gorbildatu nintzen eta aitalazera eta zer-bait berezirik nahi nuen galduta zidanean araina eskatu nion.

Simposium-egun buruzko iritzia eskatu nahi nuzun, baina elkar-riketaz zehar erantzun dibe-zuzen...
Curriculum-aren meshila nola-bait bereziko balio du, baina ez ditor garrantzia berezirik ematen. Esten didate, "nazio-

arte mailako sari bat jaso duzu...", bai, garrantzitsua da, ulertzen ditut, baina horrelako esan nahi lana hobeto edo okerrago egingo dudarik edo hemendik aurrera hobea naizenik. Parentesi bat da, goxoki nuen duzu eta kitto.

Konkretuki egurra landu duten-12n 12 eskultoreen artean lehen saria jaso duzu, ezta?
Bai eta ez nuen espero gainera. Beste bi sari ere badaude, eta duela bi urte, lehen saria, harria lantzen duen suitzar batek lortu zuen, egurra lantzen duenentzako saria ere suitzar batek eta ikuslearen saria ere suitzar batek. Esan nuen, hemen sariera saldu-tu dago, ez dago zer egirik. Aurrerant, harriko lanean arteko saria suitzar batek eraman du, ikus-leen saria ere beste suitzar batek eta egurrezkoen arteko saria.

Euskal Herria Suitza bezala menditsua delako ala?
Bai, ariztekoak da Baina ueste ginen aurretik erabiltuko zego-ela eta ezustekoak hartu nuen.

Besteia, lanik ez duzu falta, egindako gutzia 'kolokatzan' duzu?
Bai, eskatera bat eginda daukat pare bat urte berri Donostian Euskal sorkuntza eskultoreak buruzko argiketako bat egiteko ere. Lan batzuk eginda daukat eta, aurrera badaio, beste batzuk egin beharko ditut.

Nafarroako beste eta talerren egitasmoa, zer moduz?
Han dago. Orain kanpoko aldeia txukundu nahi dut Momentuz. Hernaniko taler-rean jarraitzen dut, baina egu-erri batean joateko prestatzen ar naiz.

Jubilatzen zareneko?
Ez, lehenago ere bai. Nahi nuke harriari egin beharreko lanak ateratzen diren heinean han egitea. Harriak hori dauka konpresioarekin lana egiten denez, zaratia handia sortzen da. Orain ere mamolaren eta bizilagunen zere gertatzen dugu. Esan diegiz gozoz bakarrik lan egingo dudala.

Advertisement for ANNAIYAK JANTZIDENDA. Includes photos of people and contact information: Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 362386.

Advertisement for JALAI cafe bar. Includes photos of food and contact information: KALE NAGUSIA 67 • LASARTE-ORIA. Features: RAZIOAK, PLATER KONBINATUAK, PINTXOAK, BOKATIAK, SANDWICHAK, ETXKO POTREAK, GOSARIAK.

## Ostadarreko taldeak Donosti Cupen

Asteleheneretik igandera Gipuzkoako hainbat futbol zelaietan Donosti Cup txapelketa lehiatu da. Mundu osoko hainbat talde hurbildu dira lehiaketa honetan parte hartzera eta gure herriak ere ordezkari izan du, Ostadar K. F.

Talde lasarteoriatarreko hiru taldek, infantilak, kadete neskek eta jubenilak, kopa lortzeko asmoarekin lehiatu dira txapelketan, baina ez dute finalerara iristea lortu.

### Lehenengo fasea

Infantilek lehenengo fasean jokatuak hiru partidak galdu zituzten eta ez zuten aukerarik izan.

Iñaki Aristondo eta Manex Altolagirrek zuzentzen dituzten neskek bi partida irabazi zituzten eta Belgica Girls-en aurka erori ziren, dagoeneko sailkatuak zeudela.

Jubenilek taldeko bigarren postua eskuratu zuten azken partidaren Colorado USA Pride talderi 3 eta 0 gailendu ostean. Aurretik partida bat galdu eta beste bat irabazi zuten Unai Olaizolaren mutilek.

### Lehiaketatik at

Baina bi bigarren fasea iritsi baziren ere, Ostadarreko jubenilak eta kadete neskek kaleratuak izan ziren fase



Argazkian Olaizola eta Rekondoren mutilek.

Arg.: Maria/DV



Argazkian Aristondo eta Altolagirren neskek.

Arg.: Maria/DV

honetako lehenengo partidaren.

Ostadarreko neskek Elko Soccer club taldearen aurka 2 eta 1 galdu zuten gutxiatik.

Jubenilek, berriz, La Venta del Curro taldearen aurkako

norgehiagokan ez zuten golik egitea lortu, arerioak, ordea, bi gol.

Honela, Ostadarreko taldeak kopa lortzeko aukerarik gabe geratu ziren. •

## Santos Uribe Euskadi eta Estatuko txapeldun

Santos Uribe lasarteoriatarrek Espainiako txapelketan lehiatu zen lehengo asteburuan.

Gasteizen burutu zen lehiaketan, uztailek 5 igandean, 70 eta 75 urte artekoen mailako 10 km martxa proban parte hartu zuen Zumeatarra taldeko korrikalariak eta 1:10:33.75 denbora eginaz eskuratu zuen urrezko domina.

### Lau domina

Baina ez da hau azken hila-betean lortu duen titulu bakarra. Izan ere, ekainak 28an, Donostian burutu zen Euskadiko txapelketa eskuratu

zuen, 5 km martxa proban, 31 minutu eta 59 segundoko denborarekin.

Era honetara, Santos Uribe lasarteoriatarrek lau urrezko domina eskuratu ditu aurten.

Arestian aipatutako dominenez gain, maiatzan Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen 5 km proban eta neguko denboraldian, urtarrilean Euskadiko txapelketa.

Laster 75 urte beteko ditu eta esan digunez ez du lasterketan egiteari uzteko asmorik. Orduan mailaz aldatuko du eta lehia handiagoa izango du. •



Iaz ere Uribek Euskadiko txapelketa eskuratu zuen ikusi dezakegun bezala.



## Aste honetan erabakiko da Santa Ana txapelketako finalistak zeintzuk diren

Euriari aurre eginez, jokatu ziren lehengo astean Santa Ana pala txapelketako final laurdenak. Hasiera baten astelehen eta asteartean jokatu behar ziren partidak, euriarengatik asteazken eta ostegunera atzeratu ziren.

Asteazkenean Alain Etxebeste eta Iñaki Lizasok Benito eta Joserra garaitu zituzten 35 eta 26. Partida zaila izan zen pilotalekuan ura zegoelako eta euriarengatik 30 minutuko ete-naldia egin behar izan zutelako.

Bigarren partidaren, Jon eta Mikel Begiristain anaiak hasie-

ratik aurreratu ziren loritz Iparirre eta Jon Pello Artetxeren aurkako partidaren. Azken emaitza, 35 eta 20 izan zen.

Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardajik Bernaitz Odrizola eta Shanti Martinen aurka jokatu behar zuten partida asteartean hasi bazen ere, ostegunera atzeratu zen emaitza 29 eta 21 zelarrik. Ostegunean, Arluziaga-Bardajik bikoteak zeukaten errenta mantendu eta 35 eta 26 gailendu ziren.

Azkeneko partidaren, Jon Lizaso eta Txemak Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardajir-

ren aurka 25 eta 35 galdu zuten.

### Final aurrekoak

Txapelketa azken txanpan sartzen da honela eta gaur eta bihar, eguraldiak laguntzen badu, final handian nor lehiatuko den erabakiko da.

Gaur, 19:30etan, Alain Etxebeste eta Iñaki Lizaso Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardajiren aurkako lehia ikusiko da eta bihar, ordu berean, Jon eta Mikel Begiristain Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardajiren aurka egingo dute. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Egunero

**Erakusketa**

RAFA ZUBIRIAREN argazkiak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Osteguna, 16

**Kalejira**

SOLANO MUSIKA Eskolako trikitilariak kalejira egingo dute. Oria auzoan zehar, 10:00etan



**Meza**

KARMEN EGUNA ospazeko, meza emango dute Juan Luis Murua, Xabier Andonegi eta Ramon Uribeetxeberria apai-zek. Pilar Catalina sopranoak eta Amaia Dorronsoro organistak ere parte hartuko dute mezan. Oriako Karmengo Amaren kapera, 12:00etan.



**Euskarazko pop-a Jalgin**

Miren abeslariak emanaldia eskainiko du Jalgin ostiralean. Mirenek batez ere euskarazko pop musika mota jorratzen du. Iluntze eder bat igarotzeko aukera aproposa.

OSTIRALA 17, 22:30EAN  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN  
EUSKARAZ

Larunbata, 18

**Kontzertua**

MAKULU KEN taldearen emanaldia, funk, afrobeat... Chillida Leku Museoa, 18:00etan. Sarrera, 3 euro.



Igandea, 19

**Azoka**

SANTA ANAKO XXVI. ARTISAU AZOKA ospatuko da. Bertan artisautzako postuez gain, jakian eta tailerrak egiteko postuak egongo dira. Bertso-lariak, trikitilariak, Juan Mari Arzak sukaldariari omenaldia... Dorre Parkean (Brijitaren komentua) ondoan, goizean eta arratsaldean

Igandea, 26

**Antzerkia**

SANTA ANA EGUNEKO PARODIA antzetzuko da. Isla Plazan, 22:30ean. Aurretik desfilea izango da 21:30etik aurrera herriko kaleetan zehar.

**Eskutitzak**

**Errespetua diogu haurren danborradari**

Lasarte-Oriako Udalean errespetu osoa diogu Haurren Danborradari, orain dela urte asko antolatzen hasi zena. Baina ez bakarrik ekitaldi horri, bazik eta baita haurrei eta antolakuntzan parte hartzen duten gurasoei ere.

Egia da zenbait ekitaldi daudela programan beren ordutegia finkatuta dutela orain dela urte asko, eta Haurren Danborradarena bi bider aldatu dela azken urteotan, baina ez da inoiz izan haurrentzako beste jarduera bat zegoelako eta hara joan zitezen. Arrazoia da Udaleko pertsonal falta zegoela bi ekitaldietan aldi berean egoteko. Langile horiek danborradan egon behar izan dute lehenengo, eta jarraian, ordutegia aldatu den kasuetan, jaialdi folklorikoan edo aurtin, adibidez, Betizun. Hori da ordutegia aldatzeko benetako arrazoiak.

Baina lasarteoriatarrei gai bat planteatzeko aprobetxatu nahi dut. Bizilagun batek eskutitza batean eskatzen zigan Haurren Danborradarentzako egun eta ordutegi finko bat mantentzea, baina orduan, zer erantzun behar diegu festetako egunak aldatzeko eskatu digutenei beti asteburuan tokatzeko, San Pedro eguna errespetatuz, horietan gehiago parte hartu ahal izateko? Kasu horretan, ekitaldi gehienek ordutegia eta eguna aldatuko litzateke urtertik urtera, San Pedro asteko zein egunetan tokatu arabera. Adibidez, 2010ean, festak asteleheneetik ostegunera edo larunbatetik asteartera nahiko zenituzkete?

**Jesus Maria Zaballos Gazteria eta Festak Saileko lehendakaria**

**Liburutegiko udako ordutegia**

UZTAILEAN

Astelehenetan, 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Asteartetik ostiralera, goizez soilik, 08:00etatik 14:00etara.

Larunbatetan itxita

ABUZTUAN

Manuel Lekuona Kulturetxea itxita egongo da.



Manuel Lekuona kulturetxea

**Oharrak**

**Igerileku txikia itxita**

Haurtxoentzat antolatutako Igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezten, uztailean asteartean, ostegunetan eta larunbatetan, goizeko 10:00ak eta 10:30ak bitartean igerileku txikia itxita egongo da.

**Sorgin Jaien zozketa**

Sorgin Jaiek zozketatzen zuten bi pertsonentzako afaria 428 zenbakari egokitu zaio. Saria eskuratzeko jarri zaitzete harremanetan -jaietako batzordearekin sorginjaiak@gmail.com helbide elektronikoan.

**Sta Ana parodia**

Aurtengo Santa Ana parodian parte-hartu nahi baduzu; aktore moduan (testuarekin edo gabe), atrezzoan, dekorazioan edo/eta jantziekin

lagundu nahi baduzu, jo Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4), deitu telefonoz 943 371448 edo bidali mezu bat helbide honetara: [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com).

**Eskerrak Ostadarraren laguntzeagatik**

Ttakuneko Aisia saileko Udako Txokotako arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete ostiralean Ostadarraren laguntzeagatik. Ttakuneko lankideei, Okela harategiari, zain egondako gidariei, gurasoei, haurrei, Udaltzainei laguntza bereziagatik eta orokorrean esnatu genituen herritar guztiei. Mila esker!

**Udako ordutegia**

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak kirol guneek udako ordute-

gia izango dute. Kirolegia astean zehar, goizez 7:00-13:00 eta arratsaldean 17:00-22:00 egongo da irekia, baina igerilekua eguerdian 12:30ean itxita da eta gauetan 21:30ean, larunbatetan goizez 9:00-13:00. Bulegoari dagokionez, astean zehar soilik egongo da irekia, uztailean 10:00-12:00 eta arratsaldean 17:00-19:00 eta abuztuan 10:00-12:30. Kirol gunearen ordutegia, bi hilabeteetan, astean zehar 10:00-12:30 eta 17:00-21:00 eta larunbatetan 9:00-13:00.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)  
[txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com)  
Geltoki kalea 4, behea

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz [txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com) helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Euskara ez dadin erabat arrotza izan

■ Herriko Euskaltegian euskara ikasten ari dira bederatzi etorkin. ■ Senegal, Bulgaria, Frantziar Estatu, Dominikar Errepublika, Argentina, Ekuador eta Peruko lagunak dira

Ilusioz ari dira euskara ikasten, gogorik ez zaie falta. Ez dakite urruti iritsiko ote diren. Momentuz, oinarrikoena ikasi nahi dute. Zer moduz zaude? Nongoa zara? Horrelako esaldiak euskaraz erantzuteko gai izan nahi dute. Lortuko dute. Aste bat pasa dute euskarazko eskolak jasotzen, eta jada, nahiko ondo moldatzen dira galdera horiei erantzuteko. Zenbakiakin ere ondo ari dira. Hala ere, oraindik ez dira ausartzen okindegira joan eta ogia euskaraz eskatzera. Udal Euskaltegiak urtero etorkinentzat antolatzen dituen ikastaroko ikasleak dira guztiak.

MARIA AGIRRE

Guztiak etorkinak dira, eta arrazoi bat edo beste tarteko, Lasarte-Orian bizi dira. Ez dakite zenbat denboraz izango diren herrian, baina denbora tarte horretan euskara ikasteko asmoa dute.

Uztaillean, Euskaltegiak etorkinentzako dohaineko euskara eskolak antolatzen dituela aprobetxatuz, animatu eta euskara ikasten hasi dira. Pena da, baina ikastaroak hilabete bakarrik irauten du. Batek baino gehiagok jarraituko luke, baina ondorengo ikastaroak ez dira dohakoak, eta hori, muga handia da.

## Jatorri desberdinekoak

Mari Carmen Peruko da. Familiarekin Lasarten bizi da, eta "harrituta" dago 8 urteko alabak euskaraz zein azkar ikasi duen ikusita. "Landaberri ikastolan ari da, eta urbetean euskara ikasi du. Nik, baina, ezin diot etxeko lanetan lagundu. Gustatuko litzaidake, baina, ez dut euskara ulertzen. Horregatik hasi naiz ikasten."

Petko, berriz, bulgariarra da. Zortzi urtez eraikuntzako enpresa baten egon da lanean, baina duela hilabete gutxi enpresak porrot egin, eta Petko langabezia gelditu da.

"Langabezia egonik, etxean aspertu egiten naiz. Horregatik erabaki dut ikastaroan parte hartzea." Aitortzen du euskara ikastea ez dela erraza, baina denbora aprobetxatzen ari da.

Amandinaren kasua bitxia da. Frantziarra da eta frantsesa irakasten du Hizkuntza Eskolan, baina, era berean, euskara ikasten hasi da. "Pozik ari naiz, eta euskaraz hitz egiteko gai izan nahi nuke. Baina ez dakit lortuko dudana, ez da oso erraza". Mor senegaldarrak, berriz, lau hizkuntza dakizki, eta, orain, Euskaltegian hasi da. "Baditut euskaraz hitz egiten duten lagunak, eta asko animatzen naute. Euskaraz agurtzeko gai naiz, baina gehiago ez. Aditza oso zailak dira".

Xabier argentinarra, berriz, gai da zer ikasten ari den euskaraz esateko. Josune irakaslearen laguntzarekin, zurgintza eta altzarigintza ikasten ari dela esan digu euskaraz. "Kalean baina ez naiz ausartzen ezer euskaraz esatera".

Ekuadorko Javierrek, berriz, denbora gutxi darama Lasarten. "Nire ahizpak denbora gehiago darama, eta nahikoa ulertzen du euskaraz. Nik ere lortu nahi nuke hitz batzuk euskaraz egitea. Ikas-



Andres, Mor, Xabier, Franchesca, Petko, Amandine, Javier eta Carlos. Behean, Josune irakaslea eta Mari Carmen.



Franchesca, Euskaltegian.

tao aukera ona da, eta animatu egin naiz."

## Lana dute helburu

Guztiak etorri dira lanera, eta lanak du lehenasuna. Familia aurrera ateratzeko dirua behar dute. Franchesca, Carlos eta Andres, berriz, ikasleak dira. Franchesca batxilergoan hasiko da irailan, A eremuan. Hala ere, euskara ere gaintitu beharko du, eta ikastaroa oso ondo datorriko zertxobait ikasteko. "Euskara ez zait erraza iruditzen, baina oso zaila ere ez. Ataungo lagun bat dut, eta han dena euskaraz egiten da. Apurka-apurka banao zerbait ikasiz."

Carlosek ere batxilergoan jarraituko du irailtik aurrera. "Euskara gaintitu beharko dut,

eta oinarri bat hartzeko ikastaroa oso ondo datorkit". Eta, bukatzeko, Andres. Irailean ingeniarietako ikasketak hasiko ditu. "Ikasketa horietarako ez dut euskara behar, baina, amak esaten dit euskaraz ikasi behar dudala, etorkizunean edozein lan bilatzeko garrantzitsua izan daitekeela."

Aisa izena du, etorkinentzat urtero Euskaltegiak antolatzen duen ikastaroak. Harrera-ikastaroak dira. Oinarrikoena irakasten dute. Helburua, urtean jarraitzea izango litzateke, baina irakasleek aitortzen dute etorkinentzat "zaila" dela. "Dirua da arazoa. Batzuk jarraituko lukete, baina hasieran jarri beharreko diru kopurua handia da haientzat. Horrek atzera botatzen ditu".

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest

**UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!**

## ATE IREKIAK

etorriko zurela jakinarazi!

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**ARRASATE-MONDRAGÓN MAIATZAK 28 - 17:30** osteguna 2.zikloa

AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

---

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**OÑATI MAIATZAK 14 - 18:00** osteguna

AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

---

**IRUN MAIATZAK 28 - 18:00** osteguna

AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu